



DANI BLANCO

Inma Errea

ITZULTZAILEA ♦

Musu bat

LEHEN ALDIAN batek eskatu zidanean, zurtuta gelditu nintzen. Ikusia nuen han, baina ez genuen apenas traturik. Hala ere, ausartu zen –eta harritu ninduen–. “¿Me das un besico?”, xuxurlatu zuen haren aulkitik hurbil pasatzen ari nintzela. Txundidurak une bat iraun zidan, eta segituan eman nion pot. Eskertu zidan.

Lehenaldiak beti izaten dira arraro samarrak, eta eskatu zidan emakume hari musu ematea ere hala izan zen, arraroa. Baina berehala ohitu nintzen, eta azken bost urtean franko banatu ditut adinekoren egoitzan: alaba gisa amari ematen dizkiodanez gain, beste anitz musu aletu ditut –masailean edo kopetan pausatuz nahiz airean jaurtiz–, batzuetan hartzaileek eskaturik, bestetan nik eskainita. Musu horiek guztiak inoiz ez dira joan musu-truk, guztietan jaso baitut hartzaileengandik esker ona, lehen aldi hartan bezala: irriño lotsati bat, hitz dardarati batzuk edo begirada busti-goxoa.

Gauza asko ikasi ditut *leben musu* hartatik hona, eta beste hainbeste (topiko eta aurreiritzi ugari) *desikasi*, giza harremani eta zahartzaroari buruz.

Ikasi dut musuak behar dituzten izakiak garelako –gure historia edo egoera edozein delarik ere– bizitzari, bizidunei, lotzeko, eta musuak aldi baterako

zubiak izan daitezkeela, behin-behinekoak baina sendoak.

Desikasi behar izan dut musuak senidetzaren, maitasunaren, konfiantzaren edo hurbiltasunaren arabera baino ez direla trukatzeko. Musu baten premia izanez gero, ondotik pasatzen ari den arrotza lagunik hurbilena bilaka daiteke une batez.

Ikasi dut musuak behar dituzten izakiak garelako bizitzari, bizidunei, lotzeko, eta musuak aldi baterako zubiak izan daitezkeela, behin-behinekoak baina sendoak

Ikasi dut musuak, ferekak, irribarrak eta hitz gozoak merke salduta ere balio handiko lehengaiak direla, arinak bezain mamitsuak, laburrak eta arrasto luzekoak aldi berean, onura handikoak beti hala hartzailearentzat nola emailearentzat.

Eta desikasten ari naiz besteen gorputzengandik (ez bakarrik arrotzen edo zaharren soinengandik) bereiztera behartzen gaituzten lege adierazkizak, gure sentipenak eta emozioak besteengandik babestuta gordetzeko–edo haragian eraikita daramatzagun harresi ikusezinak.

Artikulu hau idazten ari nintzela ohartu naiz: badira egunak musu bat eskatu zidan emakumea ez dudala ikusten. Galdetu beharko dut. Erantzunen aukera laburra da, ordea: gelan oheraturik dagoela esanen didate, altxatzeko indarrik gabe. Edo ospitaleratu dutela. Edo, besterik gabe, joana dela honezkero. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Proiektatu

PROIEKTUEZ beteta dugu horizontea. Azken hamarkadetan proiektua hitza da artista, ekoizle eta kulturaren arloko langileok gehien erabiltzen duguna. Horixe da hain zuzen ere, politikari eta zientzialariek dugun hitz komunena, denok egiten baititugu proiektuak. Hobe esanda, lana dugun pribilegiatuok behintzat. Bat amaitu eta beste bati lotu, edota proiektu asko aldi berean, egitasmoei begira dagoen ekoizpenari modu etengabean atxikita. Denboraren bizkortzea dakarte proiektuek, beti etorkizunari begira, eta oraina desagertzen doakigu egunerokotasunetik. Oraina. Ix.

Oraingo aldia. *Gram*. Aditzaren aldietako bat, perpauseko adizlagunak markatzen duen denbora bitartea biltzen duena. *Lit*. Ordenagailuaz haratago leihotik ikusten den oraina zatiari koska egin.

Orainaren murrizketak irudimena, sormena eta iraupenarekin esperimintatzeko aukeren desagertzea ekar dezake. Irailaz gero idatziko glosategiaren azken hitza tentuz aukeratu dut *oraingoan* ere. Etorkizunaren proiektioei gutxiago begiratzeko asmotan bederen. Gorputza eta adimena orainari lotzeko irrikaz. ■

